

OpenOffice.org 3.3.0 Debian



2011.eko azaroaren 22

Laburpena


OpenOffice.org Debian GNU/Linux sisteman nola instalatzen den azaltzen du tutoretza honek.

Debian GNU/Linux sistema ordenagailu batean instalatzen denean OpenOffice.org bulegotikako suitea ere automatikoki instalatu ohi da. OpenOffice.orgen euskarazko bertsioa instalatzeko aurretik sisteman dagoena desinstalatu behar da.

Desinstalatzeko ireki terminala eta hasi saioa supererabiltzaile gisa su - komandoa idatziz eta root supererabiltzaileari dagokion pasahitza sartuz.


Oharra: Ubuntu sistemak zuzeneko root supererabiltzailea ez duenez erabiltzen exekutatu beharreko komandoa sudo bash izan ohi da, eta pasahitza sisteman sortutako aurreneko erabiltzaile arruntarena izaten da.

2. oharra: pasahitza idaztean ez da inolako karaktererik bistaratzen, ezta izartxorik ere.



```
dooteo@dous: ~  
Fitxategia Editatu Ikusi Terminala Laguntza  
dooteo@dous:~$ su -  
Password:
```


Supererabiltzaile gisa saioa hasitakoan OpenOffice.org desinstalatu. Erabili honako komandoa: `apt-get remove openoffice.org openoffice.org-common`

A terminal window titled 'dooteo@dous: ~' with a menu bar containing 'Fitxategia', 'Editatu', 'Ikusi', 'Terminala', and 'Laguntza'. The terminal content shows the command 'root@dous:~# apt-get remove openoffice.org openoffice.org-common' entered at the prompt. The rest of the terminal area is black, indicating the command has been executed.


```
dooteo@dous: ~
Fitxategia Editatu Ikusi Terminala Laguntza
root@dous:~# apt-get remove openoffice.org openoffice.org-common
```

Desinstalazioarekin aurrera jarraitzeko idatzi b hizkia eta sakatu Sartu tekla. Denbora labur baten ostean, OpenOffice.org desinstalatuta egongo da. Ez itxi terminal hau, geroago berriro erabiliko baita.


Eskuratu Debian GNU/Linux sistemarako prestatuta dagoen OpenOffice.org artxiboa (ohartu zaituz deb hitza duela artxiboaren izenean).




Deskonprimitu artxiboa saguaren eskuineko botoiarekin klik egin eta Erauzi hemen hautatuz.



Artxiboa eu izeneko direktoriopean deskonprimituko da. Gogoratu behar da zein direktorio pean deskonprimitu den artxiboa (adibidez /home/dooteo/Mahaigaina/OOo).




Itzuli arestian irekitako terminalera, eta joan artxiboa deskonprimitu den direktoria: exekutatu `cd /home/dooteo/Mahaigaina/OOo/eu/DEBS/` komandoa. Gogoratu bide-izena zure beharretara egokitzea.




```
dooteo@dous: ~  
Fitxategia Editatu Ikusi Terminala Laguntza  
root@dous:~#  
root@dous:~# cd /home/dooteo/Mahaigaina/OOo/eu/DEBS/
```

Euskarazko OpenOffice.org instalatzeko exekutatu honako komandoa: `dpkg -i *.deb`




```
dooteo@dous: ~
Eitxategia Editatu Ikusi Terminala Laguntza
root@dous:~#
root@dous:~# cd /home/dooteo/Mahaigaina/00o/eu/DEBS/
root@dous:/home/dooteo/Mahaigaina/00o/eu/DEBS# dpkg -i *.deb
```




```
dooteo@dous: ~
Eitxategia Editatu Ikusi Terminala Laguntza
root@dous:~#
root@dous:~# cd /home/dooteo/Mahaigaina/00o/eu/DEBS/
root@dous:/home/dooteo/Mahaigaina/00o/eu/DEBS# dpkg -i *.deb
Aurrez ez hautatutako ooobasis3.3-base paketea hautatzen.
(Datu-basea irakurtzen ... 188919 fitxategi edo direktorio daude in-
stalatuta).
ooobasis3.3-base (ooobasis3.3-base_3.3.0-20_i386.deb) deskonprimitzen...
Aurrez ez hautatutako ooobasis3.3-binfilter paketea hautatzen.
ooobasis3.3-binfilter (ooobasis3.3-binfilter_3.3.0-20_i386.deb) deskonprimitzen
...
Aurrez ez hautatutako ooobasis3.3-calc paketea hautatzen.
ooobasis3.3-calc (ooobasis3.3-calc_3.3.0-20_i386.deb) deskonprimitzen...
Aurrez ez hautatutako ooobasis3.3-core01 paketea hautatzen.
ooobasis3.3-core01 (ooobasis3.3-core01_3.3.0-20_i386.deb) deskonprimitzen...
Aurrez ez hautatutako ooobasis3.3-core02 paketea hautatzen.
ooobasis3.3-core02 (ooobasis3.3-core02_3.3.0-20_i386.deb) deskonprimitzen...
Aurrez ez hautatutako ooobasis3.3-core03 paketea hautatzen.
ooobasis3.3-core03 (ooobasis3.3-core03_3.3.0-20_i386.deb) deskonprimitzen...
Aurrez ez hautatutako ooobasis3.3-core04 paketea hautatzen.
ooobasis3.3-core04 (ooobasis3.3-core04_3.3.0-20_i386.deb) deskonprimitzen...
Aurrez ez hautatutako ooobasis3.3-core05 paketea hautatzen.
ooobasis3.3-core05 (ooobasis3.3-core05_3.3.0-20_i386.deb) deskonprimitzen...
```


Denbora bat igaroko da OpenOffice.org instalatzen. Amaitutakoan joan desktop-integration direktoria komando hau exekutatzuz: `cd desktop-integration/`




```
dooteo@dous: ~  
Fitxategia Editatu Ikusi Terminala Laguntza  
root@dous:/home/dooteo/Mahaigaina/00o/eu/DEBS#  
root@dous:/home/dooteo/Mahaigaina/00o/eu/DEBS# cd desktop-integration/
```

Instalatu direktorio horretan dagoen paketea ere: `dpkg -i *.deb`




```
dooteo@dous: ~
Eitxategia Editatu Ikusi Terminala Laguntza
root@dous:/home/dooteo/Mahaigaina/00o/eu/DEBS#
root@dous:/home/dooteo/Mahaigaina/00o/eu/DEBS# cd desktop-integration/
root@dous:/home/dooteo/Mahaigaina/00o/eu/DEBS/desktop-integration# ls
openoffice.org3.3-debian-menus_3.3-9567_all.deb
root@dous:/home/dooteo/Mahaigaina/00o/eu/DEBS/desktop-integration# dpkg -i *.deb
```


Joan orain Aplikazioak - Bulegoa menura eta hautatu OpenOffice.orgen aplikazio bat.




Erabiltzaile bakoitzak bere instalazio pertsonalizatua burutu behar du. Sakatu Hurrengoa botoia jarraitzeko.




Urrats honetan erabiltzailearen datuak sar daitezke nahi izanez gero. Sakatu Hurrengoa botoia jarraitzeko.



Inoiz ez bazara OpenOffice.org-en erregistratu, oraintxe duzu aukera. Bestela, aukeratu Ez dut erregistratu nahi eta sakatu Amaitu botoia.



Instalazio pertsonala amaitutakoan arestian hautatutako aplikazioa abiaraziko da, adibidez OpenOffice.org Writer.



Mila esker OpenOffice.org erabiltzeagatik, eta on dagizula!